


BIZITEGI ERAIKINA
D MAILA

GALTZADA NAGUSIA 7



Frantzisko Urkola, 1935.

Deskribapena

Colón pasealekuaren eta Zabaleta kalearen arteko etxadi baten burua da, eta hiru fatxaden artean perimetro handia hartzen du. Eraikin ilara honek ezaugarri berezi bat du beheko solairuetan, lokal komertzialak bolumenaren lerrokaduratik kanpo ateratzen baitira, kale bakoitzerako estalki lauak sorraraziz, ez baina Galtzada Nagusiarekiko. Beheko solairua, solairuartera, goiko bost solairu eta atiko atzeraemana. Eraikinaren konposizioak lehenagoko epeetako zabalgunekoen ildotik segitzen du, lehen solairuko balkoi jarraituarekin, kasu honetan aurretik galeria hegaldun bat daukan erlaitzarekin, eta kantoi eta muturretako begiratokiekin. Gainazalak emokatuak dira, eta duela gutxi isolatzailez eta plakaz estaliak, eta arrazionalismoa iritsi ondotik apaindura sinplifikatua da moldura sistema osoan.

D mailako babes erregimen espezifikoa

- 1.-Babesetik kanpo utzitako fatxadako elementuak edo zatiak: Beheko solairuko estaldurak eta goiko solairuetako isolamendukoak.
- 2.-Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: ez.
- 3.-Esku hartzeko murrizketa partikularrak: ez.
- 4.- Nahitaezko lehengoratzak: ez.